

Super PEPO eta Mica



Hasi da berriro ikastola! Nire lagun guztiak ikusteko irrikitan nago...! Gau osoan ia ezin izan dut lorik egin, hurrengo egunean izango nuenaz pentsatzen.

Superheroien eskolan, “Superheroi praktikak” zikloa egiten hasiko gara. Orain, benetan ikasi duguna erakusteko ordua iritsi da. Adi-adi ez baldin bagaude, gure kapak galduko ditugu, eta berriro ikasten hasi beharko dugu horiek berreskuratzeko. Horregatik, gaur lehenengo eguna izanda ere, irakasle berriari hori ez zaio axola, eta etxeko lanak bidali dizkigu!


- Dakizuen bezala -esan zuen- Superheroi orok besteei entzun behar die lagun-
du ahal izateko, baina, baita eurengandik ikasi ere. Horregatik, ikasturte honetako
lehen lana emango dizuet, eta hauxe da bere izenburua: “Munduko beste
herrialdeetako Superheroiak”.

- Ze ondo! pentsatu nuen. Hemendik urruti bizi diren beste neska eta mutilen
istorioa ezagutuko dut. Oso desberdinak ote gara? Nolakoak ote dira euren
ikastetxeak? Beren kapak gureen kolore berdinak ote dituzte?...

- Zoragarria! -esan zuen Ignaziok- eta noiz joango gara bidaiari? Nire lehengusina
oso urruti dagoen herrialde batera joan zen behin, eta hamabi orduko bidaia egin
behar izan zuen hegazkinez!

- Bidaiatu beharko duzue -esan zuen irakasleak- baina “Irudimenaren indarra”
ikasgaiaren erakutsi zizuen guztia praktikan jarritz.

- Egia da andereño -esan zuen Ignaziok-. Ahaztu egin zitzaidan irudimenarekin nahi
dugun lekuraino bidaiatu, eta nahi ditugun abentura hunkigarriak bizi ditzakegula.



Bukatu zen klasea. Korrika irten ginen, eta etxerako bidean horretan pentsatzen etorri nintzen denbora guztian.

Gau horretan bertan, oheratu nintzenean, begiak gogor itxi, eta konturatu nintzenerako, banindoan hegan nire irudimenarekin eta kapa berdearekin, ziztu bizian!

Kalean alde batetik bestera korrika eta jolasean zenbiltzan neska eta mutil asko zeuden herrixka batera iritsi nintzen.

Halako batean, egurrez kargatuta zihoan neskatxa beltzaran batean erreparatu nuen; oso argala zen, eta begiak oso handiak zituen. Mika zuen izena, eta hauxe da bere istorioa:

Bere familiak ez du diru asko; aitak landan egiten du lan, baina denboraldi labur batzuk bakarrik.

Mikak zortzi urte ditu, eta bi senide txikiagoak, Fabian sei urtekoa, eta duela gutxi jaio den Sara.

Bere amak ia ez du indarririk ohetik jaikitzeke; izan ere, amek ondo elikatu behar dute gu beren sabelean gaudenean hazi ahal izateko, eta ez badute egiten, Mikaren amari gertatu zitzaion bezala, gu jaiotzen garenean berak indarririk gabe gelditzen dira.



Atsedena hartu eta ongi jan behar du ondo jartzeko, baina hori beraientzat oso zaila da. Bere etxean ez dago janariz betetako hozkailurik gure etxean bezala, eta daukaten apurra bosten artean banatu behar dute.

Mika goiz joaten zen eskolara, eta handik itzulitakoan, etxeko lan guztiak egin eta ama eta senideak zaintzen ditu.

Aitaren lanarekin ez zela nahikoa konturatu ziren, eta Mikak, arratsaldero, egur bila joatea erabaki zuen, ondoren herrian egurra saldu eta diru pixka bat ateratzeko. Horrela, bere amak zerbait jan ahal izango zuen eta berriro ondo jarri.

Ikasturtea hasitakoan, Mikak bere ametsetako bat bete nahi zuen: Udaberriko Festan eskolako banderarekin desfilea. Notarik onenak atera, eta ikaskiderik onena bezala hautakoak bakarrik lortuko zuen hori.

Mikak ahalegin handia egiten zuen, bai baitzekien zeinen garrantzitsua zen. Horrela jarraitzen bazuen, bandera eramango zuen. Baina, bere ama gaixotu egin zen, eta berak ez zeukan eskolako lanak egiteko denborarik, eta jada ez zituen hain nota onak ateratzen.



Beste neska-mutilek nota hobeak ateratzen zituzten, baina bere irakasleak gelakoei hitz egin, eta Mikak lortutakoaren berri eman zien:

- Beharrezkoa da liburuek erakusten digutena ikastea, baina askoz garrantzitsua da besteei entzutea eta laguntzea. Mikak ikasten jarraitu du, baina garrantzitsuena zera da, oso ausarta izan dela, eta familiari lagundu diola honek gehien behar zuenean. Uste dut Udaberriko Festako desfilean bandera berak eramatea merezi duela.

Klaseko neska-mutil guztiak ados zeuden: Mikak izan behar zuen bandera eramateko aukeratua, egindako guztiaz miresten baitzuten.

Iritsi zen egun handia. Mikak harro zeraman bandera, eta irribartsu zihoan, baina bere poza are handiagoa izan zen herriko plazan sartu, eta bere amak eta senideek nola txalotzen zuten ikusi zuenean.

Nire klaseko neska-mutilei asko gustatu zitzairen Mikaren istorioa. Irakasleak zoriondu zidan, eta zera esan zigun:

- Oso garrantzitsua da beste Superheroiek egiten dutena ezagutzea, eta haiengandik ikastea.

- Gainera, -esan nuen nik- bere istorioak daukaguna baloratzen erakusten digu: hemen ondo elika gaitzke, gure amak osasuntsu daude eta zaindu gaitzakete, gaixotasunen bat izanez gero sendagilearengana joan gaitzke, baita eskolara, ikastera eta jolastera ere.

Gauza asko ikasi genituen Mikari esker!

Ez dakit nola deitzen den bere Superheroien akademia, baina munduko onenetakoa behar du izan, zeren berak egin duena guk egitea lortzerako, zahartu arte ikasten aritu beharko genuke.

Hurrengo abentura arte, etorkizuneko Superheroiak!



